

 <p>AMOREBIETA- ETXANOKO UDALA P4800300H</p>	<p>IL0070</p>	<p>Udalerriko kultura eta kirol elkarten eta klub enregistra</p>
---	----------------------	---

ZER DA? ZERTARAKO DA?

Amorebieta-Etxano udalerrian diharduten irabazteko asmorik gabeko kultura eta kirol elkarteak eta klubak, elkarte-araubide espezifikorik gabeak, inskribatu ahal dira erregistro honetan.

Horrela, une oro eguneraturik eduki behar dituzten datuek eta dokumentazioak indarrean eta erabilgarri iraungo dute Ametx erakunde autonomoan eskarietarako, jardueretarako, eta abarretarako.

Antolatzen eta gauzaten dituzten jardueretan interesa duten pertsonetik harremanak errazteko xedez, hala nahi duten kultura eta kirol klubek eta elkarteek halaber, Ametx erakunde autonomoaren webgunean euren gaineko informazioa agertzea eskatu ahalko dute. Horrela bada, ondore horretarako atondu den inprimakia bete eta Ametx erakunde autonomoan erregistratuko dute.

NORK ESKA DEZAKE?

Amorebieta-Etxano udalerrian diharduten irabazteko asmorik gabeko kultura eta kirol elkarteak eta klubak, elkarte-araubide espezifikorik gabeak, inskribatu ahal dira erregistro honetan.

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

- [E128 Klub eta elkarten erregistroa](#)
- [E129 www.ametx.eus-en elkarte argitaratzeko inprimakia](#)
- Ordez kariaren NAN.
- Elkartearen IFK.
- Elkartearen eratze dokumentua, organoen eta ordezkarien izendapenak dakartzana, dagokion erregistro ofizialean behar bezala inskribatuta.
- Elkartearen estatutuak, dagokien erregistro ofizialean behar bezala inskribatuta.

NON ESKATZEN DA?

Aurrez aurre:

- [Larrea kiroldegia](#)
Larrea kiroldegia
Larrea z/g, 48340 AMOREBIETA-ETXANO
- [Zelaieta zentroa](#)
Zelaieta zentroa
Zelaieta parkea z/g, 48340 AMOREBIETA-ETXANO

Telematikoki:

- [Ametx-en web orrian](#)

ZENBAT KOSTATZEN DA?

Udalak bere gain hartuko du kudeaketa-lanen kostua.

PROZEDURAREN EPEA

Aurreikusitako epea: Zehaztu gabe

Prozedura arrunta. Legezko gehienezko epea: Zehaztu gabe

Isiltasun-administratiboaren izaera: Aldekoa

ARAUDI APLIKAGARRIA

- [Elkartzeko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoa](#)
- [7/2007 LEGEA, ekainaren 22koa, Euskadiko Elkarteei buruzkoa](#)

ESKAERA JASO ONDOREN JARRAITU BEHARREKO PROZEDURA

1. Eskaria eta dokumentazioa batu eta egiaztatu.
2. Kultura zerbitzuak edo Kirol zerbitzuak dokumentazioaren instrukzioa eta ikuskapena gauzatuko ditu.

NORK ONARTU BEHAR DU?

Ametx erakundeko presidentea

IZAPIDETZEKO ARDURA DUEN UDAL SAILA

Ametx erakunde autonomoa - Kultura

OHARRAK